

EUSKAL SAGARDOA, MUGAZ GAINDI



Albaolan eginiko ontzi hau aste honetan iritsiko da Britainiara. Euskal Sagardoa darama sotoan.

Britainiako 'Semaine du Golfe du Mor Bihan' topaketa Europako itsas festibalik garrantzitsuena da. Aste honetan ospatuko da eta Albaola izango da gonbidatu berezia. Pasaiako ontziz gintza eskolan eginiko ontzi bat apirilean abiatu zen Mo Bihan-era (Britainia) eta egunotan iritsiko da. Euskal Sagardoa darama sotoan.

Pasaia eta Mor Bihan (Britainia) bereizten dituen ia 500 miliako bidaia egiten ari da Juanita Larando izeneko ontzia eta soilik haizearen eta arraunen indarra baliatzen du.

'Semaine du Golfe du Mor Bihan' festibalaren helburua belazko garraioa berreskuratzen laguntzea da. Erregai fosilik erabili gabe zamak garraiatzea, bestela esanda. Eta ideia honekin bat dator Juanita Larando izeneko ontzia. XVIII. mendeko merkataritzarako txalupa baten erreplika da eta Albaolako ontziz gintza eskolan eraiki zuten. Amaitutakoan emakume kortsario baten izenarekin bataiatu zuten. Hortik dator izena: Juanita Larando.

Bordeleko Sagardo Egunean

Apirilaren erdialdean abiatu zen Pasaiatik baina geldialdirik ere egin du bidean. Apirilaren 23an esate baterako, ontziaren sotoan garraiatutako sagardoaren zati bat Bordeleko portuan deskargatu zuten eta bertan Sagardo Eguna ospatzeko baliatu zuten.

Bordeleko geldialdia eta gero, Mor Bihan-era jo zuten berriro ontziak. Tripulazioa helmugara iristear da, aste honetan (maiatzaren 15etik 21era) ospatuko baita topaketa ezaguna.

Hogei lagunez osaturiko tripulazioa

Hogei pertonek osatzen dute ontziaren tripulazioa. Itsas ondareari buruzko erakusketa bat zabalduko dute eta horretaz gain, sokagintza, arraungintza edota estrobogintza bezalako itsas jarduera tradizionalen erakustaldiak egingo dituzte. "Pasaia Itsas Festibalaren 2024ko edizioa sustatzeaz gain, Euskal Sagardoa jatorri izendapeneko sagardoa eta Bordeleko ardoa salduko dira, biak modu jasangarrian garraiatuak izan direlarik", Albaolatik jakinarazi dutenez.

Kataluniara eta Balearretara iritsi da Euskal Sagardoa



Eroskik Euskal Sagardoa jatorri izeneko botilak salduko ditu Katalunian eta Balearretan.

Eroskik EAEko hogei sagardogilarekin baino gehiagorekin lan egiten du eta 40 sagardo erreferentzia saltzen ditu Euskal Sagardoa jatorri izenarekin. Gorenak kalitate zizilua duten botilak ere merkaturatzen ditu.

2023. urtean, Euskal Sagardoa jatorri izeneko milioi bat litro sagardo erosiko du. Hori sagardo ekoizpen osoaren ia heren bat da.

Austriako jardunaldi batzuetan



Apirilean 'International Pear Congress' eta 'Cider&Spring Festival' ekitaldiak ospatu ziren Austrian. Sagardoaren Lurraldeak erakundeak Ciderlands sarearen hitzaldian hartu zuten parte.